


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Anekdotak Ruben Ruiz

PAMIELA
ZARAUZKO UDALA


62 orrialde

9,50 euro

Iazko Lizardi Saria eskuratu zuen lana

Ruben Ruiz (Gasteiz, 1973) zortzi urteko neskato baten eguneroko gorabeheretan oinarritu zen *Anekdotak* liburua idazteko. Zarauzko Udalak antolatu ohi duen Lizardi Saria literatur lehiaketaren XXVI. edizioan irabazle izan zen Ruizen liburua. Anek, liburuko protagonistak, asko maite du bere izena, eta aski du gertuko andre zahar bati “anekdota” hitza entzutea —nolabait bere izena gogoratzen dion hitza— berak ere berari gertatutakoak kontatu ditzakeela pentsatzeko. Horrela hasiko du bere egunerokoa. Kontatzen dituen anekdoten artean, eskolan,

etxean, medikuarengana joatean, izeba Lauraren seme txikia ezagutzean, edota denda ikaragarri handian pasatokia daude besteak beste. ■



Carlos Ribera. Bere ekarpena arteari

Batzuen artean

KUTXA FUNDAZIOA.

104 orrialde / 27,03 euro

Carlos Ribera margolari eta arte-kritikariaren lanak

Carlos Ribera (1906-1976) Valentzian jaio zen, baina urte askoan Donostian bizi izan zen, hil arte. Kutzak plazaratutako *Carlos Ribera. Bere ekarpena arteari. Su papel en el arte* liburua, iaz margolariaren jaiotzaren mendeurrenarekin Gipuzkoako hiriburuan eta Altsasun antolatutako erakusketetan erakutsitako lanak biltzen ditu. Erakusketak horiek izan zuten aurrekaririk, gertukoena Alzirán (2006ko azaroan) *Viaje al Punt de Partida* izenarekin antolatutakoa. Ekitaldi hauetan ez da soilik sortzailea, artista, erakutsi nahi izan, bere garaiko gizon baten irudia baizik, bizitzea egokitu zitzaion errealitate sozial eta politikoa ondo ezagutu zituena. Horregatik, Carlos Ribera arte-kritikari gisa idatzi zituenetatik zenbait ere jaso dira lanean. ■

Serafin eta natura zikintzen dutenak

Etxeko gazteenentzat Ibaizabal argitaletxeak plazaratutako Serafin Arkumearen bildumako ipuina da *Zerriak edo paper ziztrín sorta*. Udaberria hasi da eta zelaietatik osteratxo gozoa egitera doa Serafin Arkumea. Lore ederrak ikusiko ditu, kolore eta usain liluragarriak, eta sorta bat egitea bururatuko zaio. Baina bat-batean paper ziztrín mordoa ikusiko du haien alboan. Berehala ohartuko da halako paperik ez dela soroetan hazten, nork ekarriko ote zituen? Laster aurkituko du erruduna, paperontziak zerbitetarako daudela ahazturik zakarrak lurrera botatzen ari den zerria. Ez da bakarra, ordea. Zerri hori berehala elkartuko da bere moduko beste batekin. Iji-aji, biak paperak lurrera botatzen hasiko dira. Hori ikusirik, Serafinek erabakia hartuko du: paper guztiak bildu eta zerrien gainera jaurtitzea! ■



Zerriak edo paper ziztrín sorta

Taï-Marc Le Thanh


IBAIZABAL

26 orrialde

7,20 euro

Mikelats Gorroto- ren poesia berriak

Bitxia dugu Mikelats Gorroto. Hasteko, duela 306 urte jaio omen zen, Anboto mendian. Mari du amandre, Mikelats aita. Bera ez da mundua salbatzera etorri. Gure perbertsio ankerrenak, gure amorru ustelenak eta gure arimaren bazter beltz eta ezkutuenetatik desio geurekoiak irtenaraztera baizik. *Laukiak, zutabeak, biribilak* poema bilduman egunero ikusten ditugun pertsonetan edo egoeretan antzeman ditzakegun formak gogorarazten dizkigu. Hitzek gure bizitza osatzen dutelako. Hitzek gerora eramaten gaituztelako. Porrotera ala paradisura. Plazerera eta zigorrera. Jaiotzatik heriotzera. Mikelats Gorrotoaren ustez gizakiekin eta lekuekin ditugun harremanek lau-kiak osatzen dituzte. Lekuak lau-kiak dira; pertsonak, oster, erpinak. ■



Laukiak, zutabeak, biribilak

Mikelats Gorroto

HIRIA

104 orrialde

9,50 euro



Eusko Legebiltzarraren txostena

Batzuen artean

ARARTEKO
739 orrialde

Arartekoaren 2007ko txostena

Ararteko erakundeak 2007an jasotako keak eta horietatik ateratako ondorioak biltzen ditu *Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2007* liburua. 1.558 kexa jaso zituen Iñigo Lamarca zuzentzen duen erakundeak joan den urtean. Hainbat alorretako eskubide urraketen ingurukoak izan ziren salaketok, besteak beste, genero indarkeriaren ingurukoak, etorkinen eskubideen ingurukoak, torturak eta tratatu txarrak jasan dituzten herritarrenak edota eskola jazarpenaren ingurukoak. Arartekoaren txostenean kexa espediente bakoitzaren laburpena hiru zatitan egituratuta aurkeztu dute: sortutako

ko problematika azaltzen duen kontakizuna, arazoaren analisia eta Ararteko erakundearen esku-hartzearen ondorioa. ■

Euskal Pirinioetatik itzulia, mapa zehatza eta guzti

Santiago Yanizek idatzitako gidaren izen zehatza *La vuelta al Pirineo Vasco siguiendo las grandes rutas CR-10 y CR-11* da. Hendaia-Olhetatik hasi eta Bera-Higer lurmuturreraino, Sara, Ainhoa, Bidarra, Baigorri, Donibane Garazi, Ezterenzubi, Bagargiko muinoa, Logibarre, Santa Grazi, Arette, Lescún, Linza, Izaba, Otsagabia, Orbaizeta, Sorogain, Elizondo eta Saroiberri

Borda bisitatze-ko aukera eskaini du Yanizek Sua argitaletxearen eskutik plazaratu den liburu honetan. ■

Pirineo Vasco

Santiago Yaniz

SUA

100 orrialde / 19 euro



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

«Elkarrekin ondo ezkontzen diren bi istorio diferente dira»

Zer da *Bizitza homeopatikoa*?

Ipuinen edo narrazio laburren genero hau nik inoiz ez dakit definitzen, baina istorioak hala atera zaizkit. Nire aspaldiko liburuetan behin baino gehiagotan egin ditut halakoak. Ez da propio idatzitakoa, gustatzen zaidan neurria da, berez ateratzen zaidana. Baina natorren mamira: bi istorio dira eta liburu bat.

Zein dira istorioen antzekotasun eta diferentziak?

Garai diferenteetan idatziak dira. *Bizitzaren sentimendu homeopatikoa* 2003an hasi eta 2004an bukatu nuen; bestea berriz, iaz hasi eta aurten bukatua da. Aurrenekoa tonu komiko, umoretsu, parodikoan idatzia da, karikaturatik asko du. Protagonista liburu saltzaile bat izateaz gainera, izaeraz neurotikoa samarra da eta txepela, eta horregatik deskalabru batzuk gertatuko zaizkio; horien ondorioetatik hasten da galdetzen: nola iritsi naiz ni honetara? Bigarren kontakizuna, berriz, ez dakit dramatiko den, baina tonu serioa du. Bizitzako galdera funtsezkoak agertzen dira bertan. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak, gurasoak zahartzen direnean zer jarrera hartzen duen seme edo alabak... Umeak eduki edo ez edukitzearen inguruko kontuak ere agertzen dira; altruismoa, egoismoa...

Eta zerk batzen ditu halako istorio ezberdin bi?

Batetik, arrazoi praktikoa: liburuak eduki behar du orri kopuru minimo bat. Baina hortik aurrera joanda, esango nuke istorio hauek ondo ezkontzen direla elkarrekin. Bi protagonistak daude bizitzaren erdian, maiz noraeza, zalantza gertatzen den garaian. Eta gainera, biek kartzelan bukatzen dute.



DANI BLANCO

Umorea eta bizitzaren arazoak

Xabier Mendiguren Elizegik Sua argitaletxearen eskutik kaleratu du azken liburua,

Bizitza homeopatikoa.

Bi istorio bildu ditu: aurrenekoa umorea barra-barra darion kontakizuna, liburu saltzaile bati gertatutako pasadizoak azaltzen dituen, baita protagonistaren ogibidearen zenbait kontu eta uni-bertsitateko irakasleak hartzeko sistemaren inguruko argibideak ere. Mirande du izena liburu-dendak eta haren jabeari maitalearekin opor-ontzi handi batean porturik portu bidaia egiteko aukera sortuko zaio. Bidaia horren ondorioak ez dira inondik ere liburu saltzaileak espero zituenak izango. *Bizitzako garairik onena* deritzan kontakizunean berriz, Bruselan, Europako Parlamentuko itzulpen zerbitzuan patxada ederrean ari den emakume euskaldu-



Bizitza homeopatikoa

Xabier Mendiguren Elizegi

SUSA

152 orrialde / 14 euro

egileari galdezka

nari gertatutakoa kontatu du. Aitari ebakuntza larria egin behar dioten unean, amak erabakiko du senarraren neskame izateaz nazkatu dela eta etxetik joango dela. Itzultzailearen ezustekoa ez da txikia, baina are gehiago korapilatu-ko zaizkio gauzak: espetxean duen nebaren andreak amarekin batera senarra ikustera joateko, iloba zaintzeko eskatuko diote. ■